



EBAZPENA, 2022ko azaroaren 10ekoa, Langileriaren Kudeaketa zuzendariarena. Erabaki honen bidez aditzera ematen da noiz egingo den tokiz aldatzeko lehiaketan parte hartu duten funtzionarioek alegatutako merezimenduak baloratuko dituzten Balorazio Batzordeetako kideen zozketa. Ondoko kidegoetako funtzionarioak dira: Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza-Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoko, Arte Plastiko eta Diseinuko katedradun eta irakasleen kidegoetako funtzionarioak bai eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoko funtzionarioak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren menpe daudenak.

Hezkuntza sailburuak 2022ko urriaren 7an emandako Aginduaren bidez egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioari unibertsitatekoak ez diren irakasleen kidegoetako langile funtzionarioen arteko estatu mailako lekualdatze-lehiaketarako deialdia (EHAA, 2022ko urriaren 14a). Agindu horren hogeita hirugarren oinarriarekin bat etorritz ondokoa.

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- 2022ko urriaren 7an Aginduak araututako lekualdatze-lehiaketan parte hartzen dutenek (Maisu-maistren kidegokoak izan ezik) alegatutako merezimenduak -I. Eranskinetako puntuazio-baremoko 5.1, 5.2, 6.1, 6.2 eta 6.3 atalei dagokienez- ebaluatzeko Batzordeetako partaideen zozketa 2022ko azaroa 11ean egingo dela, eguerdiko 9:00etan, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzan (Donostia-San Sebastian, 1, Lakua II. eraikina, 3. solairuan Vitoria-Gasteiz).

Bigarrena.- Hezkuntza Sailaren web orrian edo <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila> edo <https://hezigunea.euskadi.eus>, emango da argitara aipatutako zozketaren emaitza aditzera ematen duen Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren ebazpena.

Vitoria-Gasteiz, 2022eko azaroaren 10a.

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO